

GAZTEEN ARAZO GUTXIETXIAK

Gaur egun gazteen bizimodua asko aldatu da eta oso gutxietxita daude beraien arazo eta eguneroko oztopoak. Testu honetan gai konkretu batzuen inguruan hitz egingo dugu; gazteen zaugarritasuna sare sozialekiko, hezkuntzak ezarritako presioa eta LGTBIQ+ kolektiboak jasotako jazarpena, hauek baitira gazteak gehien biltzen dituzten hiru arazo gutxietxiak.

Lehenik eta behin, sare sozialen erabiltzaileen gehiengoa gazteak dira eta denok bertan jazarpen ezberdinak jasan daitezkeela esan arren, eta gaien nahiko kontzientziatuak egonarren, badaude hainbat gazte oraindik hau isilean eramaten jnm en dutenak.

Datu batzuk lortu ditugu eta hauekin ondorio batzuk atera ditugu. Hasteko, instagram da jazarpen gehien ematen den sare soziala, %80 eko datuekin, eta gaur egun oso araroa da gazteak sare sozial honen erabiltzaile ez izatea. Gazteen %77,6-a da bertako erabiltzaile, eta gehienak emakumeak, %83,1 eko portzentaiarekin.

Horrez gain, jendeak geroz eta lehenago edukitzen dituzte sare sozialak. Batez besteko adina 14 urte dira eta berez adin horrekin hasi zaitezke erabiltzen sare sozialak legearen arabera. Hortik behera gurasoen baimenarekin bakarrik erabili daiteke, eta nerabe asko eta askok ez dute. Guraso horiek beraien seme-alabak arazoak edukitzen hasten direnean arduratzen dira, iada beranduegi denean.

Arazoak mota ezberdinetakoak izan daitezke; gehienak behin behineko arazoak izaten dira, baina beste asko ez. Gazteen %40-ak ziberbullinga jasan dute. Horrez gain, 15 eta 29 urteko gazte ugari, 2/10 gazteek erabiltzailearen bat blokeatu behar izan dute irainak eta gorroto mezuak jasotzeagatik. Hau gutxi ez balitz, gazteen %37,7-ak estafa jasan dute edozein sare sozialekiko, baina nahiz eta hau izan orokorrena, beste hainbat arazo sortzen dira: estafaren ondoren, bideo eta argazki intimoak zabaltzea dago; hau gazteen %37,4-ek jasaten dute. Ikusten den bezala oso tarte gutxi dago batetik bestera. Hirugarren postuan, identitate iruzurra dago eta %30,6-ak jasaten dute. Ondoren, guri kontrolatzeko eta jarraitzeko beldurra dago, %18,9-rekin. Azken bi arazo edo beldur orokortuenak, bakoitzaren iritziarengatik edo jarrerarengatik jazartua izate da (%15,6). Hau oso ohikoa da gaur egungo influencerrei egitea. Amaitzeko, askoren ustez ohikoena dena eta entzunena dena, bideojokuetara adikzioa sortzea da. Gazteen %15,2-k hau jasaten du.

Ondorioz, ikusten dugun bezala sare sozialek arazo larri ugari sortzen dituzte eta askotan ez ikusiarena egiten dugu. Denok gara arazo haun berri, baina inork ez du garrantzia jartzen. Gainera, guraso askok horrelako arazoren bat jasatean beraien seme-alabei botatzen diete errua, baina askotan nahiz eta sare sozialen erabilera on bat egin arren, horrelako arazoak etortzen dira. Amaitzeko, arazoak etorri baino

lehen eragozteia ongi egongo litzateke, hots, ez behin arazoaren barruan gaudenean orduan hasi iraganean pentsatzen eta damutzen egindakoaz.

Beste gai garrantzitsu bat gazteen artean ikasketak dira. Gure gizartean oso barneratua dago gaztetatik ikasketa maila edukitzea. Txiki txikitatik presioan bizi dira gazteak ikasketa aurrera eramateko, eta horren arira, askok eta askok beraien osasuna arriskuan jartzen dute. Hasteko, azken ikerketen arabera, ikasleen %28ak bere buruaz beste egiteo pentsamentua edukitzen ditu eta horietatik %24,9 ak arriskua erakusten du, baina oraindik arriagarriagoa dena horietatik %15,3-ak planeatu egin du.

Ikusten dugunez, datua ongi adierazten duten bezala, gaur egungo gazteak hezkuntzarengatik oso presionatuta daude. Hasieran esan dugun bezala, txiki-txikitatik hasten gara ikastolan eta iada lehen urteetan zenbakiak edo koloreak ez bakakizkizu, horrelako desberdintasun bat nabaritzen hasten dira. Ondoren, lehen hezkuntzan lehen azterketetak jasaten ditugu, hauen emaitza askotan ez da espero zena eta iada errefortzu klaseak ezartzen dizkizute zure onurarako. Derrigorrezko bigarren hezkuntzan oraindik era presio gehiago ezartzen da. Gainera 16 urterekin zure ibilbidea erabaki behar duzunean eta ez dakizunean zer egin orduan eta presio gehiago duzu. Ikasle ona bazara batxilergora bideratua izango zara, aldiz ez bada horrela gradu batera. Gradura sartu ezker, zure etorkizuna nolabait aurreikusia dago, besteak aldiz beste bi urte batxilergoa egiten pasako dute, eta ondoren, orain bai, hauek erabaki bat hartu beharko dute. Batxilergora iristean, orain bai presioa asko handitzen da, batez besteak direla eta.

Askoren ustez, gurasoak eta irakasleak gehienbat, hau dena bizitzaren parte den zerbait da eta nola denok egin dugunez, zu ere gai zara egiteko. Baina moduak eta moduak daude hau aurrera eramateko. Denontzat eramangarria den moduan egin beharrean, askok beste moduan egiten dute.

Beste gai gutxietxi bat, nahiz eta geroz eta landuago egon gizartean, LGBTIQ+ kolektiboaren aurkako gorrotoa da. Egia da, lehen baino askoz ere errazagoa dela horrelako kolektibo baten parte garela onartzea, Europa mailan behintzat oso ohikoak dira hauen eskubideak aldarrikatzeko matxinadak eta jaiak ospatzea, baina oraindik mehatsu asko dago kaleetan. CIS-aren esanetan, Espainiako gizartearen %8-%7-atalde honen parte da. Ehuneko horretatik %29a jazartua izan da, %27,5-a diskriminatua eta %8,6 a fisikoki jazarria izan da beraien orientazio sexualagatik azken bost urtetan.

Hau jasan behar dutenenen artean gazte ugari daude kalera ateratzeko beldurrez. Askotan ez dute inor horrelakoen aurka lagundu ahal izateko edo ez dago erreztasunik horrelakoak errez salatzeke. Gainera azpimarratzekoa da geroz eta

gizartekide gehiago aurki ditzakegula talde hauen parte dena, hots, lehen ezagutzen zen hetero zis normatibotik kanpo geratzen diren gazteak.

Beldurgarriena, gaur egungo gazte ugari ideologia geroz eta itxiagoa dutela, esandako guzti honi oztopo handi bat sortuz, eta askok eta askok internet eta horrelakoetan elkar babesten dira. Denok uste dugu pentsatzeko modu hau helduek eta hirugarren adinekoak izango dutela, baina gazte askok ere horrela pentsatzen dute, gizarte desorekatu eta desestrukturatu bat sortuz.

Hau dena laburtuz, esan daiteke gazteek arazo ugari jasaten dituztela. Sare sozialetako arazoak azaldu ditugunean esan dugun bezala, askotan pentsatzen da beraien errua dela, baina nahiz eta arduratsu jokatu askotan jazartua ez izatea ezinezkoa da. Hezkuntza laburtuz, esan dugun bezala presio ugari jasaten dute txiki-txikitatik eta nahiz eta guraso nahiz irakasleek esan ikasketak denok egin dezakegun zerbait dela, presioa jeistea eta tamaina aurkitzea oso ongi etorriko litzateke. Amaitzeko, LGTBIQ+ gaiak geroz eta gizarteratuagoak egon oraindik ere lanketa asko falta da. Gizartearen zati handi bat, gazteak barne, errepresioan bizi da eta eskubide falta itzelak jaso behar dituzte berain eguneroan. Esan bezala asko dira jazarriak eta diskriminatuak. Honek denak hobekuntza behar du gizarte mailan jendearen pentsamoldea aldatu ahal izateko eta honek aurrera egin ahal izateko berezkoak diren eskubideak lortuz.

Gogoratu dezagun gazteen bizitza ez dela beti erraza eta gaur egungo gizarteak geroz eta zailagoa egiten ari deña. Beraz gauzen denon artean gazteen arazo gutxietxi hauek ikustaraztea eta zabaltzera, hemendik aurrera arazo hauek gizartean zer esan handiagoa eduki dezateen.

Bibliografia:

[Gazteukera | Informazioa, jarduerak eta Euskadiko gazteentzako zerbitzuak](#)

[LGTBIfobia](#)